

30. atala: Bakarka

Txanogorritxu

30.1- Entzun 30. atala eta erantzun beheko galdera hauei:

- Eskisabelek bi modu desberdinetan adierazten dio Kevini ez dagoela haurdun. Nola?
- Zergatik hasten da Eskisabel El Conquis saioaz hizketan?
- Nor aurkeztu zen El Conquis saiora?
- El Conquis saioaren ikusle-kopuruak behera egiteko arrazoi bana ematen dute Tasiok eta Kevinek. Zein dira?
- Zergatik galtzen du pazientzia Eskisabel kapitainak?



30.2.- Kevinek "El Conquis"erako perfil egokia duela esaten dio Eskisabelek. Zure ustez, zein ezaugarri izan behar du pertsona batek horrelako saio batera aurkezteko? Ordenatu beheko baieztapenak, garrantzi handienetik txikienera. Kontuan hartu ostiralean gaiari buruz arituko gara.



Horrelako saio batera aurkezteko beharrezkoa da:

- Kirolaria izatea.
- Harremanetan iaioa izatea.
- Sufritzen jakitea.
- Eztabaidatzen jakitea.
- Talde-dinamikan abila izatea.
- Solidarioa izatea.
- Lehiakorra izatea.
- Gizena ez egotea.
- Atsegina izatea.
- Ausarta izatea.



30. atala: Bakarka

Transkripzioa (02:26)

E- Johnson.

K- Bai.

E- Bakarrik al zaude?

K- Honezkero jakin beharko zenuke hartz batekin bidali nauzuela espaziora.

E- Orain bakarrik ote zauden esan nahi dut.

K- Tasio laborategian dago, bai.

E- Dena konponduta, Johnson.

K- Konponduta? Keba, Eskisabel kapitaina. Hal-ionek apurtuta jarraitzen du. Nik dakidala, ez da konpondu.

E- Hori ez... konponduta dagoela... jaitsi zaidala.

K- Jaitsi zaizula, zer?

E- Nola zer?

K- Zer jaitsi zaizun...

E- Oraintxe bertan nire autoestima... zurekin nolatan oheratu nintzen galdetzen diot behin eta berriro nire buruari.

E- Hi-le-ro-ko-a.

K- Baina ez al zen...

E- Eta arazo hau konponduta dagoenez, ez dut gai honetaz sekula santan berriro hitz egin nahi. Ados?

K- Bai, bai, ados.

T- Zertaz ari zarete hizketan? Zer da jaitsi dena?

E- E... audientzia, Sarasola... E..E...El Conquis saioaren audientzia.

T- Bada, pena da,e? Antxoni eta bioi asko gustatzen zaigun saioa da.

K- Nik behin aurkeztu nuen nire burua frogetara.

E- Eta ez zintuzten hartu?

K- Bada, ez. Harritzekoa, ezta?

E- Egia esan bai. Perfil perfektua duzulako.

T- Nik uste aurtengoa 67. edizioa izango dela. Normala da ikusleagoak behera egiten hastea, klaro.

E- Bai, Patagoniako glaziarrak urtu zirenetik.

K- Bada, nik uste batez ere aurkezle hark utzi zuenetik hasi zela gainbehera.

E- Zein diozu? Ilehoriaren gainean metxa are horiagoak egiten zituen hark?

T- Bueno, nik laborategira itzuli behar daukat, e?

E- Joan al da Sarasola?

K- Bai.

E- Bada, esandakoa... Txanogorritxu azaldu dela eta amaitu da kontua.

K- Txanogorritxu?

E- Ez dut ezer esan. Ahaztu!

K- Errespetu guztiarekin, baina batzuetan ez duzu zure burua behar bezala azaltzeko gaitasunik. Zer esango dizut, bada? nik jada pentsatua nuen...

E- Baina nola pentsatu nezakeen honek isuritako ezerk bide zuzena topatuko zuenik.

K- Mutila baldin bazen, Albert eta neska baldin bazen, Alberta.

Erantzunak

30.1.-

- a) - (Hilerokoa) jaitsi egin zaiola esanez.
- Txanogorritxu azaldu dela esanez.
- b) Tasio etorri eta honek elkarrizketa entzuterik nahi ez zuenez, burura etorri zaion lehenengo gauza izan delako.
- c) Kevin.
- d) Tasio: 67. edizioa delako aurtengoa, alegia, denbora luzea darama.
Kevin: Aurkezle hark (Jantzik) utzi zuenean hasi zen gainbehera.
- e) Kevinek ez diolako ezer ulertzen.